

• ASTERO GAIA •

Labarretako artelanen erreplikak

Lehenengo artea eta azken teknologia

Ekainberri erreferente bihurtu da labar artearen errepliken munduan, lehenago inoiz erabili gabeko tekniken bidez egin baitute. Erreplikaren barrunbeak ulertzeko historiaurreko artearen eredu nagusietakora jo dugu, Lascauxera (Frantzia), bertan baitago Renaud Sanson, Ekainberriren egilea.

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Argazkiak: Dani Blanco

ZK productions-eko kideak Lascauxeko behi beltzaren kopia egiten. Proiekzio fotografikoa erabiltzen dute, eta beltzaren ñabardurak nabarmenagoak izan daitezten, kolorea desmuntatu eta tonu biziagotan proiektatzen dute. Behi erdia egiteko 6-8 hilabeteko lana beharko da.



Labarretako artelanen erreplikak

DUELA 30.000 URTE gizakiak kobetako hormetan irudiak marrazten hasi ziren. Inguruan bildutako materialak erabiltzen zituzten koloratzaile gisa; ikatza, manganesoa, okrea eta hematiteari esker, kolore beltza, horia edo gorria lortzen zuten. Aglutinatzaile gisa listua edo animalien koipea erabiltzen zuten. Hormen bolumenak ere aprobetxatzen zituzten irudiei forma emateko. Marrak pintzelez egin ohi zituzten eta, irudia kolorez betetzeko, pigmentua ahoan sartu eta putz egiten zuten, gaur egungo sprayen moduko efektua lortuz. Behar izanez gero egurrezko aldamiok altxatzen zituzten, artistek bertan erosoago lan egin zezaten. Irudi bat ordu gutxitan egiten zuten; esaterako, Lascauxeko bisonte pare egiteko Paleolitoko artistek 5-6 ordu behar izan zituztela ondorioztatu dute adituek.

XXI. mendeko kopiatzaile batek, aldiz, hilabetetako lana eta berrikuntza informatiko eta teknologiko puntakoenak behar ditu irudi horixe bera ahalik eta zehatzen erreplikatzeko. Lan esker-ga, baina ezinbestekoa, historiaurreko ondare artistikoa gorde nahi bada.

XX. mendean, artelanez apaindutako koba asko bisitariarentzat zabalik egon ziren, baina kobazulo horien oreka hautsi eta pinturak hondatze prozesu azkarrean sartu ziren. Artelan horiek adituek aztertu eta publikoak goza zitzaizkien erreplikak behar ziren.

Ekainen erronka

Erreplikak egiteko teknikak eboluzio handia izan du azken hamarkadetan. Ederki ikusten da hori Dordoinako Montignac herrira bisitaldia eginez gero. Bertan daude Lascauxeko kobazuloa, 80ko hamarkadako Lascaux II faksimilea eta, besteak beste,

“Shocka izan zen Ekainen sartzea, mundu primitiboa oso indartsu antzematen delako. Utero modukoa dela konturatzen zara, artearen jaiotza sinbolizatzen duena”

RENAUD SANSON, EKAINBERRI ERREPLIKAREN EGILEA

Ekainberri egiteaz arduratu den ZK Productions tailerra. Baina tailerraren eta erreplikaren arduradun Renaud Sansonen arabera, “Ekainen erreplika egiteko eskatu zigutenean konturatu ginen ordura arte egindakoak ez zuela balio; Ekaineko hormek bolumen oso koskatsua dute eta hori zehaztasunez kopiatzeko baliabiderik ez zegoen”.

Sanson 1994an sartu zen lehenengoz Ekainera, koba aurkitu eta 25 urtera, hain zuzen. Jesus Altuna Aranzadiko arkeologoak Sansonen lantaldeak Niauxeko kobaren erreplikari egindako lana ikusia zuen eta Ekainen gauza bera egiteko proposamena luzatu zion. “Shocka izan zen Ekainen sartzea, bertan mundu primitiboa oso indartsu antzematen delako. Lascaux labar artearen katedrala bada, Ekain ermita erromaniko txikia da. Baina horrek intimoagoa egiten du eta, azkenean, utero modukoa dela konturatzen zara, artearen jaiotza sinbolizatzen duena”. Gainera, Lascauxeko kobazuloak margolan kontzentrazio izugarria du eta ezinezkoa da koba osoaren erreplika egitea. Ekaineko ordea erreplika osoa egiteko aukera ezin hobea eskaini zion.

Ekainberri egiteko kontratua 1998an sinatu zuten. Lanean jardundako hamar urteetarik sei ikerketan eman zituzten, Ekaineko eskatzen zituen teknologiazko prestatzen, Renaud Sansonek dioen moduan “sukaldeko lanean”. Eta azkeneko lau urteetan gauzatu zuten faksimilea.

Hormetan dago koska

Paleolitoko artistek arrokaren erliebea aprobetxatzen zuten irudiak egiteko. Artelan horiek argazkian edo edozein euskarri lautan kopiatuz gero, emaitza deformatu egiten da.

Lascauxetik Ekainera

Duela 17.000 urte. Historiaurreko artistek Lascauxeko kobako hormak margotu zituzten.

Duela 12.000 urte. Madeleine Aroko gizakiek Ekaingo kobako margolanak egin zituzten.

1940. Irailaren 12an Montignac-eko lau nerabek Lascauxeko koba aurkitu zuten.

1948. Lascauxeko kobazuloak publikoari atek zabaldu zizkion. Egunero 2.000 bisitatik gora jaso zituen.

1963. Bisitarien eragindako kalteak zirela eta, Lascaux ixtea erabaki zuten. Margolanak egoera tamalgarriz zeuden.

1969. Uztailaren lehenean Azpeitiko Antxieta elkarteak Rafael Rezabalek eta Andoni Albizurik Ekaingo koba aurkitu zuten. Joxemiel Barandiaran eta Jesus Altuna izan ziren koba ikertzen lehenak.

1983. Lascaux II erreplika inauguratu zuten, hiru urteko lanen

ondoren. Monique Peytralek eskuz hartutako apunteen bidez kopiatu zituen irudiak.

1998. Ekainberriko erreplika egiteko lanak hasi ziren.

2001. Mikroorganismo, ondo eta bakterioen aurkako tratamendua eman zioten Lascauxeko kobari. Baina oraindik ere arriskuan da.

2008. Ekainberri faksimilea inauguratu zuten.



Goian, Lascauxeko Puits izeneko panelaren erreplika egin berria, ZK Productionseko tailerretan. Lascaux III erakusketa ibiltariko paneletako bat da eta garrantzi berezia du, koba osoko giza irudi bakarra duelako. Gainera, lehen ehizako eszena soiltzat jotzen zenari interpretazio espiritualago eta sakonagoa egin diote azkenaldian. Ezkerrean, Ekainberri osoaren polietilenoazko moldea, tailerraren alboko pabilioi batean gordea.

“Hirugarren dimentsiorik gabeko kopiak ez du zentzurik”, Sansonen hitzetan. Eta hori are funtsezkoagoa da Ekaineko arroka kostasuaren kasuan.

Duela 25 urte inauguratutako Lascaux II erreplikan, hormak zementuz egin zituzten, eskuz, objektibotasunik gabe. Gaur egun ohikoa da poliesterrak eta plastikoak erabiltzea. Eta kasu gehienetan bolumenen kopia gutxi gorabeherakoa da. Horma naturala nahiko laua denean beharbada ez du halako garrantzirik, baina Ekaintzat beste zerbaitez asmatu beharra zegoen.

Hasteko koba osoaren bolumenak laser teknologiaren bidez erregistratu zituzten. “Horixe izan da berrikuntzarik garrantzitsuenetakoa” Sansonen iritziz. “Prezisia eta azkartasuna uztartzea lortu genuen, Ekain osoa ordu gutxi batzuetan erregistratu bainenuen”. Milioika erreferentzia puntu informatikoki bildu eta datu guztiekin polietilenoazko erreplika ia perfektua egin zuten, paneletan banatuta. Ia perfektua diogu, sistema horren bidez erliebeak gehienez 2-4 mm-ko errorea baino ez izatea lortu dutelako.



● Labarretako artelanen erreplikak

Molde horiek garraiatzeko aproposak ez direnez, silikonazko kontra-moldeak egiten dituzte, gero, tokian tokian, kasu honetan Zestean, kontra-molde horietatik abiatuta polietilenoazko behin-betikoko panelak egiteko. Panelak erretxinaz eta kareharri birrinduz estaltzen dituzte eta, modu horretan, harri arina eta aldi berean gogorra lortzen dute. Azkenik, panelak itsatsi eta, horratx koba zehaztasun osoz kopiatua.

Gainera, moldea Montignaceko tailerretan gordeta, behar adina kopia egin daitezke. Esaterako, Lascauxeko bost panel bikoitzekin Lascaux III erakusketa ibiltaria prestatu dute. Panel bakoitzaren kopiatako batean irudiak pintatu dituzte eta bestea zuri utzi dute proiektzio bidezko azalpenak egin ahal izateko. Ekainekin antzeko zerbait egin nahi izanez gero, berriro moldera jo besterik ez dago.

Irudiak xehe-xehe

Euskarria prest dagoenean, marrazkiak kopiatzeko txanda da. Kopia zehatzak egiteak originala sakon eta luze aztertzea eskatzen du. Baina pinturen oreka gordetze aldera, kopiatzaileak ezin du luzaroan koba barruan egon. Irtenbidea originalari argazkiak egitea da, baina ez nolana hikoak.

Batetik, estereofotografia erabili dute. Gizakiok ikusmen estereoskopikoa daukagu, hau da, irudi bera bi ikuspuntutik –bi begietatik– ikusten dugu eta garunean biek bat egitean, hiru dimentsioko irudia lortzen dugu. Hortaz, argazki bikoitzak egin dituzte, begien arteko distantzia kontuan hartuz, gero kopiatzaileak bie begiratu eta irudi erreala, bolu-menduna, lor dezan. Estereofotografiarik gabe, hormen erliebea erreproduzitzen egindako ahalegin guztiak ez luke zentzurik

Bestetik, argazki bakoitza gutxienez hiru argiztapenekin egin dute: argia parez pare



Renaud Sanson, kopia perfektuaren bila

Ekaineko erreplika egiteaz arduratu den gizona ez dator historiaurrearen edo arkeologiaren mundutik. Le Havren jaio eta Parisen hazia, txikitatik izan zuen artelanak ahalik eta zehatzen kopiatzeko grina. Braque, Picasso edo Léger margolari kuttunen kopiak egiten zituen. Profesionalki zinema eta antzerkiko eszenografian aritu zen, Lascauxetik deitu zioten arte. 1980an erreplikaren ardura har zezan proposatu zioten eta berak baldintza bakarra ipini zuen: bi urtez astero koba originalean sartzeko aukera. Ordutik aurrera zehaztasuna eta objektibotasuna izan ditu helburu. Ez du bere burua artistatzat jotzen; erreplikatan arteak eta subjektibotasunak ez du lekurik. Zientzia eta teknologia erabiltzen ditu artea kopiatzeko eta bere lanaren xedea oso garbi du: kopiaren egilearen eskua ez nabaritzea.

Kopiatzaileak horma biluzian kopiak egiten hasi behar duenean bi tresna erabiltzen ditu aldi berean: estereofotografia eta horman proiektatutako argazkia. Modu horretan edozein deformazio saihesten da

dutela, ezkerrean dutela eta eskuinean ipinita. Horri esker, erliebea duten irudien xehetasun guztiak antzematen dira.

Kopiatzaileak horma biluzian marrazkiak egiten hasi behar duenean bi tresna erabiltzen ditu aldi berean: estereofotografia eta horman proiektatutako argazkia. Modu horretan edozein deformazio saihesten da.

Formaren auzia konponduta, koloreak kopiatu behar dira. Hori lortzeko ere originalaren argiztapen egokia ezinbestekoa da, argazkietan benetako koloreak ager daitezken. Baina labarretako artelanen kromatismoa lehen begi kolpean dirudiena baino konplexuagoa da. Esaterako, irudi batek beltz tonu eta intentsitate asko izan ditzake. Giza ikusmenaren bidez ez dira erraz ikusten eta horretan ere, informatikaren laguntza dute kopiatzaileek: kolorea numerikoki desmuntatzen dute. Beste modu batera esanda, beltz, gorri zein hori tonu bakoitza kolore bizi batek ordezkatzen du argazkian.


Argazkia proiektatzean kolore bizi horiek ikusten dira horman –lehen orrialdeko argazkian ageri den moduan–. Eta, Andy Warholek Marilyn Monroeren irudi koloreztatuarekin lortutako efektua gogorarazten duen proiektzio horri esker, kopiaren egileak koloreen ñabardurarik txikiena ere antzeman dezake.

Betiko materiala, eta pazientzia

Hainbeste berrikuntza teknologikoren artean, ordea, kopiak egiteko pigmentuak aukeratzeko orduan historiaurrera itzultzea erabaki dute. Erabili duten pinturaz galdeztzean, erantzuna soila da: “Duela milaka urte kobetako artistek erabiltako berbera”. Hau da, ikatza, okrea, oxido ferrikoa eta abar. Halaber, originalaren ahalik eta antza handiena izan dezan, kobaren inguruan biltzen dute materiala. Hori bai, listuaren ordez akrilikoa erabiltzen dute aglutinatzaile gisa.

Lascaux gaixo dago

17.000 urtetan egoera ezin hobean gordetako margolanak urte gutxitan hondatu zituzten. 1948an Lascaux publikoari zabaldu zitzaionean kobaren oreka biologikoa hautsi zen. Tenperatura, hezetasuna eta argia aldatu ziren, eta milaka bisitariren karbono dioxidoak kaltea areagotu zuen. Gainera, ohikoa omen zen jendea koba barruan tabakoa erretzen edo hormak ukitzen ikustea. Baina 1963an koba itxi zutenean, arazoa ez zen konpondu. Bakterioen eta ondoen kontra behin eta berriro egindako tratamenduak (azkena, 2001ean) ez dira nahikoa izan. Sasizientzialarien lanak ere ez zion mesede egin; besteak beste, bi urte luzez artelanak kaltetzen zituen argiztapena piztuta izan zuten etengabe.



Lascaux II erreplika. Ateak duela 25 urte zabaldu arren, originala egoera tamalgarrian dago oraindik.

Orain gutxi arte, kobaren hondamena salatzen zutenek ez zuten oihartzunik lortu; ofizialki Lascauxeko altxorra kontrolpean zegoen. Iaz Frantziako Kultura ministroak kobara jaitsi, egoera ikusi eta galera saihesteko neurriak hartzeko borondatea agertu zuen. Baina adituak eszeptikoak dira. "Eszeptikoa ez, pesimista baizik" dio Renaud Sansonek. "Zinemako izarren bat gaixotzen denean mundu guztia arduratzen da. Lascaux emakume oso ederra da, baina ez da izarra eta hiltzen utziko dute".

"Erreplika hori izanda, gaitzerdi", pentsa dezake norbaitek.

Baina Lascaux II faksimileak koba osoaren zati txiki bat baino ez du hartzen eta oraindik 1.500 irudi inguru daude kopia gabe.

Eskerrak Ekain hasieratik itxita gorde zuten.

Hortik aurrera pintzela eskuan hartu eta kopiaren egileak behar duen gauza bakarra pazientzia izugarria da.

1879an Altamirako margolanak aurkitu zituztenetik, labar artea gizarte osoari zabalteko ahaleginak egin ziren. Baina artelan primitiboek jasandako kalteak ikusita, kobetako atea itxi zituzten. Egun, teknologiak ondare

horren kopia zehatzak egitea ahalbidetzen du. Renaud Sansonen hitzetan, "arrazoi tekniko-engatik ondare hori debekatua egon da, baina orain gizakien kontzientzia estetikoaren jaio-tza publikoari eskaintzeko moduan gaude". ■

www.argia.com/multimedia/diaporamak
helbidean, erreplika prozesuaren diaporama.

Witch-en sortzailiak
Fairy Oak sailera
beste atal bat
eman du argitara

GERO
EUSKAL LIBURUAK
www.mensajero.com

FAIRY
OAK
Elisabetta
Gnone

Iluntasunaren Ilura